

**ESTATUTOS
DE LA SOCIEDAD
AGUAS DEL AÑARBE-AÑARBEKO URAK, S.A.**

**AGUAS DEL AÑARBE-AÑARBEKO URAK, S.A.
SOZIETATEAREN
ESTATUTUAK**

(Aprobados por la Junta de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe el 22 de noviembre de 1994 y modificados, por aumento y red denominación en euros del capital social, por la Junta General de AGASA de fecha 15 de febrero de 2001)

(Añarbeko Uren Mankomunitateko Batzarrak 1994ko azaroaren 22an onartuak, eta AUSaren Batzar Nagusiak 2001eko otsailaren 15ean aldatuak, kapital soziala gehitzeagatik eta eurotan jartzeagatik)

TITULO I: DENOMINACION, OBJETO, DURACION Y DOMICILIO

Artículo 1º

Entre las formas de gestión de servicios públicos permitidas por la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y por el Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, que aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Legales Vigentes en Materia de Régimen Local, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 25 de los Estatutos de la Mancomunidad Municipal de Aguas del Embalse del Río Añarbe, la Mancomunidad constituye una sociedad mercantil con capital perteneciente íntegramente a la Mancomunidad, bajo la modalidad de Sociedad Anónima, que se denomina Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A.

Artículo 2º

La sociedad tiene por objeto:

- a) El aprovechamiento de las concesiones de aguas que se efectúen a favor de la Mancomunidad Municipal de Aguas del Embalse del Río Añarbe (en adelante Mancomunidad) o que sean cedidas por los Ayuntamientos integrantes de la misma.
- b) La conservación y explotación del embalse del río Añarbe, así como la adquisición o construcción, la conservación y explotación de las conducciones, estaciones depuradoras, bombeos, depósitos y ramales, que sean necesarios para conducir las aguas de dicho embalse hasta los lugares de toma de cada uno de los Ayuntamientos mancomunados.
- c) La prestación del servicio de abastecimiento de aguas del Embalse del río Añarbe hasta los lugares de conexión con las redes municipales, es decir, en redes primarias.
- d) La prestación del servicio de abastecimiento de aguas procedentes de los demás manantiales que no vierten en el Embalse del río Añarbe, hasta los lugares de conexión con las redes municipales, es decir, en redes primarias.

I. TITULUA: DEITURA, HELBURUA, IRAUPENA ETA HELBIDEA

1. Artikulua

Zerbitzu publikoen kudeaketan apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Erregimen Lokaleko Oinarrien Erregulatzaille denak onarturik eta 781/1986, apirilaren 18ko Errege-Dekretu Legegilearen arabera, zeinak onartzen baitu Erregimen Lokaleko gaietan Indarreango Lege-Xedapenen Testu Berritua, eta Añarbe Ibaiaren Urtegiko Uren Udal Mankomunitatearen Estatutuek 25. artikuluan xedaturik dutenez, Mankomunitate hau merkataritza-sozietate bilakatzen da osoki Mankomunitateari dagokion kapitalarekin eta Sozietate Anonimo bezala, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. deitura hartzen duelarik.

2. Artikulua

Hona sozietatearen helburuak zeintzuk diren:

- a) Añarbe Ibaiaren Urtegiko Uren Udal Mankomunitatearen alde (aurrerantzean Mankomunitatea soilik) burutzen diren uren emakidaz edota beronen kide diren Udalen ekarpenez baliatzea.
- b) Añarbe ibaiaren urtegia zaindu eta ustiatzea, eta halaber urtegitik ura elkarkide diren Udallerri bakoitzaren hartunera ura bideratzeko beharrezko diren erdiespen edo eraikuntzak egitea, hoditeriak, araztegiak, ponpaketak, ur-gordailuak eta ubideak zaindu eta ustiatzea.
- c) Añarbe Ibaiaren Urtegiko horniketa zerbitzua burutzea udal sareekiko loturak eginez, hots, lehen mailako sareetan.
- d) Añarbeko urtegitara ez datozen beste iturburuetakoren horniketa zerbitzua burutzea udal sareetako lotuneetara eramanez, hots, lehen mailako sareetara.

- e) La prestación del servicio de saneamiento de aguas residuales y pluviales en redes primarias.
- f) La liquidación, gestión, recaudación e inspección de los ingresos por la prestación de todos los servicios relacionados con el ciclo integral del agua, así como todos los aspectos referidos a la gestión de abonados.
- g) El establecimiento, renovación, mantenimiento y explotación de las redes locales de distribución de agua y saneamiento.
- h) El asesoramiento técnico a los Ayuntamientos miembros, en todas las materias relacionadas con la gestión del ciclo integral del agua.
- i) Las demás atribuciones relacionadas con la prestación de todos los servicios integrantes de la gestión del ciclo integral del agua.

Tal objeto social se podrá desarrollar por la sociedad total o parcialmente de modo indirecto, mediante la titularidad de acciones o participaciones en sociedades con análogo o idéntico objeto social.

Artículo 3º

La sociedad se constituye por tiempo indefinido.

Artículo 4º

La sociedad dará comienzo a sus operaciones en el día del otorgamiento de la escritura de constitución, sin perjuicio de que el ejercicio efectivo de sus actividades concretas comience a realizarse en los días que a continuación se señalan:

- a) Respecto de los actos incluíbles en los apartados a), b), c) y e) del artículo 2º de estos Estatutos relativo al objeto social, a partir del día en que le sean aportados a la sociedad los activos patrimoniales de la Mancomunidad que resulten necesarios para el desarrollo de la actividad.

- e) Hondakin-uren eta euri-uren saneamendua lehen mailako sareetan burutzeko zerbitzua ematea.
- f) Uraren ziklo integralari buruzko zerbitzu guztiekiko sarrerak kitatzea, kudeatzea, biltzea eta ikuskatzea, eta halaber, abonatuak kudeaketari dagozkion beste zeregin guztien ardura.
- g) Uraren banaketa eta saneamendurako sareak herrietan ezartzea, berriztatzea, mantentzea eta ustiatzea.
- h) Kide den Udal bakoitzari aholkularitza teknikoa ematea uraren ziklo integrala kudeatzeari dagozkion gaietan.
- i) Uraren ziklo integrala kudeatzeari buruzko zerbitzu orori dagozkion gainerako eskubideak zaintzea.

Helburu soziala sozietateak berak erabat edota partzialki garatu dezake, antzeko helburua edo berdina duten sozietateetako akzioen titulartasuna duelako edo horietan partaidetza duelako.

3. Artikulua

Denbora-mugarik gabe eraikitzen da sozietatea.

4. Artikulua

Bere eraketa-eskrituraren data-egunetik hasiko ditu eragiketak sozietateak, nahiz eta zenbait ekintza konkretu burutzea jarraian adieraziko den egunetan hasi ahal izango den:

- a) Helburu sozialari buruz Estatutu hauetako 2. artikuluko a), b), c) eta e) ataletan sarturik dauden ekintza horiei dagokienez, bere garapenerako beharrezko dituen ondare aktiboak Mankomunitateak sozietateari ekartzen dizkion egunetik izango dute hasiera.

b) Respecto de los actos incluíbles en los apartados d), f), g), h) e i) del artículo 2º de estos Estatutos relativo al objeto social, a partir del día en que, respecto a cada Municipio, formalmente se produzca la asunción por la Mancomunidad de las respectivas funciones.

Artículo 5º

El domicilio de la sociedad radicará en San Sebastián, Pº Errotaburu, nº 1, 2ª y 6ª plantas.

El Consejo de Administración podrá decidir la creación, supresión o el traslado de sucursales u oficinas descentralizadas y el cambio de domicilio social dentro del mismo término municipal.

TITULO II: CAPITAL SOCIAL Y ACCIONES

Artículo 6º

El capital social se fija en la suma de tres millones seiscientos cuarenta y nueve mil (3.649.000) euros, representado por cuarenta y cuatro mil quinientas (44.500) acciones, con un valor nominal de ochenta y dos (82) euros cada una de ellas, numeradas correlativamente del número 1 al 44.500, ambas inclusive, totalmente suscritas y desembolsadas.

Artículo 7º

Las acciones estarán representadas por títulos, serán nominativas, constituirán una sola serie y podrán incorporar una o más acciones. Estarán numeradas correlativamente, se extenderán en libros talonarios y contendrán como mínimo las menciones exigidas por la ley.

Dichas acciones serán intransferibles.

TITULO III: DEL GOBIERNO DE LA SOCIEDAD Y ORGANOS SOCIALES

Artículo 8º

La sociedad estará dirigida y administrada por los siguientes órganos:

b) Helburu sozialari buruz Estatutu hauetako 2. artikuluko d), f), g), h) eta i) ataletan sartzen diren ekintza horiei dagokienez, Mankomunitateak Udallerri bakoitzarekiko dituen betebeharrak bere gain formalki hartzen dituen egunetik hasiko ditu.

5. Artikulua

Sozietatearen helbidea Donostiako Errotaburu pasealekua, 1 – 2. eta 6. solairuetan kokatuko da.

Administrazio-Kontseiluak erabaki dezake sukurtsal edo bulego deszentralizatuen ezabapena nahiz lekualdaketa eta helbide sozialaren aldaketa udalerriz aldatu gabe.

II. TITULUA: KAPITAL SOZIALA ETA AKZIOAK

6. Artikulua

Kapital soziala hiru milioi seiehun eta berrogeita bederatzita mila (3.649.000) eurotan finkatzen da, berrogeita lau mila bostehun (44.500) akziotan ordezkaturik, bakoitzak laurogeita bi (82) euroko balio nominala izango du, 1etik 44.500era zenbaki korrelatiboarekin zenbakitua, biak barne, erabat harpidetuak eta ordainduak.

7. Artikulua

Tituluen bitartez adieraziko dira akzioak, nominatiboak izango dira, serie bakarra osatuko dute eta akzio bat edo gehiago bilduko ditu. Modu korrelatiboan zenbakitua egongo dira, taloitegi-liburuetan emango dira eta, gutxienez, legeak eskaturiko aipamenak eramango dituzte.

Akzio hauek besterezinak izango dira.

III. TITULUA: SOZIEATEAREN GOBERNUA ETA GIZARTE ORGANOA

8. Artikulua

Honako organo hauek zuzendu eta kudeatuko dute sozietatea:

- La Junta General
- El Consejo de Administración
- El Director-Gerente

CAPITULO I: JUNTA GENERAL DE ACCIONISTAS

Artículo 9º

La Junta General de la sociedad es el órgano deliberante, que expresa con sus acuerdos la voluntad social.

Artículo 10º

La Junta General está constituida por la Junta de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, esto es, por los representantes de los Ayuntamientos miembros, designados por éstos de entre sus componentes, con arreglo a la siguiente proporción:

- Uno por cada Municipio de menos de 15.000 habitantes.
- Dos por cada Municipio comprendido entre 15.000 y 50.000 habitantes.
- Tres por cada Municipio comprendido entre 50.000 y 100.000 habitantes.
- Cuatro por cada Municipio comprendido entre 100.000 y 200.000 habitantes.
- Los Municipios de más de 200.000 habitantes tendrán un representante más por cada fracción de 200.000.

La población se computará según los habitantes de derecho resultantes en las renovaciones de los respectivos padrones municipales, aprobados quinquenalmente.

En lo no dispuesto en los presentes Estatutos, el funcionamiento de la Junta General se acomodará en cuanto a procedimiento y forma de adopción de acuerdos a los Estatutos de la Mancomunidad y supletoriamente, en primer lugar, a la normativa de régimen local, y en todo cuanto no esté contenido en ella, a la Ley de Sociedades Anónimas.

Artículo 11º

La Junta será presidida por quien en cada momento sea Presidente de la Mancomunidad,

- Batzar Nagusia
- Administrazio-Kontseilua
- Zuzendari-Gerentea

I. KAPITULUA: AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIA

9. Artikulua

Batzar Nagusia sozietatearen organo deliberatzailea da, bere erabakietan sozietate-kideen borondatea erakusten duelarik.

10. Artikulua

Añarbeko Uren Mankomunitateko Batzarrak osatzen du Batzar Nagusia, hau da, bertako kide diren Udaletako ordezkariak, zeintzuk udal izendapena duten, ondoko proportzio honen arabera:

- Ordezkari bat 15.000 biztanletik beherako Udalerrri bakoitzetik.
- Bi ordezkari 15.000 eta 50.000 biztanle bitarteko Udalerrri bakoitzetik.
- Hiru ordezkari 50.000 eta 100.000 biztanle bitarteko Udalerrri bakoitzetik.
- Lau ordezkari 100.000 eta 200.000 biztanle bitarteko Udalerrri bakoitzetik.
- 200.000 biztanletik gorako Udalerrriek ordezkari bat gehiago izango dute, 200.000 kopuru bakoitzeko.

Bost urtez behin egin ohi den udal eroldaren arabera egingo da herri bakoitzeko populazioaren kontaketa.

Estatutu hauetan xedaturik ez dagoenari buruz, bai prozedurari bai eta akordioak hartzeko moduari dagokionez, Batzar Nagusiaren funtzionamendua Mankomunitatearen Estatutuetara bilduko da eta ordainez, lehenik, erregimen lokaleko arautegiari egokituko, eta hemen adierazita ez dauden puntuetan Sozietate Anonimoen Legeari.

11. Artikulua

Mankomunitateko Lehendakaria izango da Batzar Nagusiko buru, eta honek ezin duenean

y caso de ausencia o vacante por su Vicepresidente. Asimismo, será Secretario de la Junta General de la sociedad el que en cada momento lo sea de la Mancomunidad o el funcionario en quien éste delegue.

La Junta General de la sociedad puede ser ordinaria o extraordinaria. Es ordinaria la que previa convocatoria, deberá reunirse necesariamente dentro de los seis primeros meses de cada ejercicio para censurar la gestión social, aprobar en su caso las cuentas anuales del ejercicio anterior y resolver sobre la aplicación del resultado. Serán extraordinarias las restantes Juntas Generales.

Se admite asimismo, la celebración de Juntas universales sin previa convocatoria, siempre que estén presentes la totalidad de los miembros de la Junta y acuerden por unanimidad su celebración.

Artículo 12º

Son atribuciones de la Junta General:

- 1º) Nombrar y separar a los Administradores, determinar su número, fijar su retribución y las garantías que hayan de prestar, o relevarles de ello.
- 2º) Modificar los Estatutos sociales.
- 3º) Aumentar o disminuir el capital.
- 4º) Aprobar la Cuenta de Resultados Previsional, el Balance Previsional, el Cuadro de Financiación Previsional y demás documentos exigidos por la normativa presupuestaria de las Entidades Locales, y especialmente la relación de inversiones y el estado de endeudamiento, para su posterior remisión al Presidente de la Mancomunidad.
- 5º) Aprobar los Planes de Inversión de obras.
- 6º) Aprobar las formas de financiación concretas de cada servicio.
- 7º) Aprobar las cuentas anuales, el informe de gestión y la aplicación del resultado.

edo kargua hutsik dagoenean, Lehendakariordea. Halaber, sozietatearen Batzar Nagusiko Idazkaria une horretan Mankomunitateko idazkari dena izango da edota honek ordezkotzat izendatzen duen funtzionarioa.

Sozietatearen Batzar Nagusia ohikoa edo ezohikoa izan daiteke. Ohikoa, deialdia bitarteko, ekitaldi bakoitzeko lehen sei hilabetekoan burutu behar da sozietatearen gestioa eztabaidatzeko, aurreko urteko kontuak onartzeko eta emaitzak nola aplikatu ikusteko. Gainontzeko Batzar Nagusiak ezohikoak izango dira.

Onarturik daude, baita ere, aurretiko deialdirik gabeko Batzar Nagusi orokorrak, beti ere batzarkide denak bertaratzen badira eta guztien adostasunez jokatuz gero.

12. Artikulua

Batzar Nagusiaren ahalmenak hauek dira:

- 1) Administrariak izendatu eta bereiztea, berauen kopurua eta ordainketa finkatzea eta berauen zeregina, edo aldaketa, erabakitzea.
- 2) Estatutu Sozialak aldatzea.
- 3) Kapitala gutxitu edo gehitu.
- 4) Emaitza Aurreikusien Kontua, Balantze Aurreikusia eta Finantzaketa Aurreкусиaren Koadroa onartzea, hala nola, Erakunde Lokaletako arautegiak exijituriko dokumentu oro, eta bereziki inbertsioen zerrenda eta zorren egoera, ondoren Mankomunitateko Lehendakariari bidali ahal izateko.
- 5) Obra-inbertsioko plangintzak onartzea.
- 6) Zerbitzu bakoitza finantzatzeko moduak onartzea.
- 7) Urteko kontuak, kudeaketaren txostena eta emaitzen aplikazioa onartzea.

8º) Emitir series numeradas de obligaciones.

9º) Conceder facultades al Consejo.

10º) Nombrar Auditores de Cuentas.

11º) Adoptar el acuerdo de ejercicio de la acción para exigir responsabilidad a los administradores.

12º) Acordar la transformación de la sociedad.

13º) Las demás atribuciones que a la Junta General haga la Ley de Sociedades Anónimas, la legislación local y los presentes Estatutos.

Artículo 13º

La Junta General quedará válidamente constituida cuando concurren a ella al menos la tercera parte de sus miembros, sin que su número pueda en ningún caso ser inferior a tres.

No obstante, para la adopción de los acuerdos contenidos en los números 2º, 3º, 8º y 13º del artículo 12 de estos Estatutos será necesaria la concurrencia del cincuenta por ciento del número total de votos de la Junta.

Artículo 14º

Los acuerdos de la Junta General se adoptarán por mayoría simple de votos de los miembros asistentes. Ello no obstante, será necesario el voto favorable de dos terceras partes del número de miembros presentes y, en todo caso, de la mayoría absoluta del número legal de votos totales de la Junta, para la adopción de los acuerdos contenidos en los números 5º y 6º del artículo 12 de estos Estatutos.

A los efectos de lo dispuesto en este artículo, el número de votos correspondientes a cada miembro de la Junta será el determinado en el párrafo 2º del artículo 14 de los Estatutos de la Mancomunidad, esto es, el que resulte de dividir la milésima parte de la respectiva población de hecho por el número de sus representantes computado conforme determina el artículo 10 de estos Estatutos. Las fracciones superiores a cinco décimas se contarán a

8) Obligazioen serie zenbakidunak jaulkitzea.

9) Kontseiluari ahalmenak ematea.

10) Kontuei buruzko ikuskariak izendatzea.

11) Ekitaldiari dagokion akordioa hartzea administrariei kontuak eskatu ahal izateko.

12) Sozietatearen eraldaketa erabakitzea.

13) Sozietate Anonimoen Legeak, lekuko legediak eta Estatutu hauek Batzar Nagusiari ematen dioten gainerako ahalmenak.

13. Artikulua

Batzar Nagusia baliozkoa izango da bertan bere kideetariko heren bat biltzen bada, inoiz ere kopuru hau hiru baino txikiagoa izan ez daitekeelarik.

Alabaina, Estatutu hauetako 12. artikulua 2., 3., 8. eta 13. zenbakidun ataletan bildutako akordioak hartu ahal izateko beharrezko izango da Batzarreko boto guztien ehuneko berrogeita hamarra osatzea.

14. Artikulua

Batzar Nagusiko akordioak bertan bildu diren kideek osaturiko botoen gehiengo sinpleaz hartuko dira. Alabaina, beharrezko izango da bertan diren kideen bi herenen botoak eta, nolahi ere, Batzarren boto kopuru osoaren gehiengo absolutua Estatutu hauetako 12. artikulua 5. eta 6. zenbakiak jasotzen dituzten akordioak hartzeko.

Artikulu honetan xedaturikoaren ondorioetarako, Batzarkide bakoitzaren boto kopurua Mankomunitatearen Estatutuen 14. artikulua 2. atalean zehazturik dago, hots, herri bakoitzaren populazioaren milakoa zatikatzen da berari dagozkion ordezkarien kopuruagatik, Estatutu hauen 10. artikuluan zehazten denaren arabera konputatuz. Bost hamarrenaz goitiko frakzioak unitate modura kontatuko dira, beheitikoak aintzat

dichos efectos como unidad, y las menores no se tendrán en consideración.

Artículo 15º

De las reuniones de la Junta General se extenderá acta en el libro llevado al efecto. El acta podrá ser aprobada por la propia Junta General o en su defecto, dentro del plazo de quince días por el Presidente y dos Interventores, uno en representación de la mayoría y otro por la minoría.

CAPITULO II: EL CONSEJO DE ADMINISTRACION

Artículo 16º

El Consejo de Administración constituye el órgano ejecutivo encargado de la gestión permanente de la sociedad y de sus relaciones con terceros, representando a ésta en juicio y fuera de él.

Artículo 17º

Componen el Consejo de Administración un mínimo de tres y un máximo de nueve consejeros, correspondiendo a la Junta General la determinación de su número y la designación de sus miembros.

La designación de los consejeros podrá realizarse atendiendo a los principios del sistema proporcional que, en virtud de las especialidades de la Junta General de esta sociedad, se sujetará a las siguientes reglas:

- a) Los representantes de los Ayuntamientos miembros que voluntariamente se agrupen hasta constituir un número de votos igual o superior al que resulte de dividir el número total de votos por el número de consejeros, tendrán derecho a designar los que, superando fracciones enteras, se deduzcan de la correspondiente proporción.
- b) En caso de que se haga uso de esta facultad, los representantes agrupados no intervendrán en la votación de los restantes miembros del Consejo.

hartzen ez direlarik.

15. Artikulua

Batzar Nagusietako bilkuren zehaztasunak horretarako dagoen akta liburuan bilduko dira. Batzar Nagusiak berak onartuko du akta, edota hori ezean, hamabost eguneko epean Lehendakariak eta bi Kontuhartzailek, horietako bat gehiengoaren izenean eta bestea gutxiengoaren izenean jardunez.

II. KAPITULUA: ADMINISTRAZIO-KONTSEILUA

16. Artikulua

Administrazio-Kontseilua organo exekutiboa da, sozietatea kudeatzearen ardura du eta hirugarrengeokiko harremanak bere gain daude, hura epaiketa baten nahiz handik kanpo ordezkatzeko duen erantzukizuna.

17. Artikulua

Gutxienez hiru kontseilari eta gehienez bederatziz izango dira Administrazio-Kontseilua osatuko dutenak, beti ere kopurua finkatzea eta horien izendapena Batzar Nagusiak egingo duen erantzukizuna.

Sistema proportzionala jarraituz egingo da kontseilarien izendapena, eta sozietate honetako Batzar Nagusiaren berezitasunen arabera, ondoko arau hauetan finkatuko da:

- a) Botoen kopuru totala kontseilarien kopuruaz zatituz lortzen den botoen kopuru berdina edo gehiago lortzeko, beren borondatez elkartzen diren Udal kideen ordezkariak eskubidea izango dute, frakzio osoak gaituz, dagokion proportzioaren arabera egoki den kontseilari kopurua izendatzeko.
- b) Ahalmen hau erabiliz gero, elkarturiko ordezkariak ez dute gainerako kontseilariak hautatzeko bozketan parte hartuko.

- c) En todo caso, la composición del Consejo que resulte de la aplicación de las reglas anteriores, deberá respetar los requisitos de composición previstos en la normativa de régimen local.

Afectarán a los consejeros las incapacidades e incompatibilidades que para ejercer cargos representativos señalan las disposiciones de régimen local, así como las impuestas por la Ley de Sociedades Anónimas.

Los consejeros ejercerán su cargo durante el plazo de cinco años, pudiendo ser reelegidos, una o más veces, por períodos de igual duración. Ello no obstante, cesarán automáticamente como consejeros los miembros del Consejo de Administración nombrados en razón de ser miembros de la Junta de la Mancomunidad, si perdieren esta última condición, aunque seguirán en funciones hasta que sean designados los nuevos.

En el caso de producirse una vacante en el Consejo de Administración, la Junta designará en el plazo de un mes al nuevo consejero.

Los consejeros percibirán dietas por asistencia a las sesiones. La Junta General fijará el importe de las citadas dietas. Además, aquellos consejeros que no son a su vez miembros de la Junta de la Mancomunidad, percibirán la remuneración que señale la Junta General de la sociedad.

Artículo 18º

Si la Junta no los hubiere designado, el Consejo nombrará de su seno un Presidente y si lo considera oportuno uno o varios Vicepresidentes.

Actuará como Secretario quien designe el propio Consejo, pudiendo recaer el nombramiento en un consejero. Si el Secretario no fuera consejero, tendrá voz pero no voto en las sesiones del Consejo.

Artículo 19º

El Consejo de Administración será convocado por su Presidente, cuando lo considere oportuno, y al menos una vez al trimestre.

- c) Dena den, aurreko arauak aplikatuz osatzen den Kontseiluak beharrezko izango du toki-erregimeneko arautegian osaketa hori egiteko aurreikusirik dauden baldintzak errespetatzea.

Kontseilariak ordezkartzako karguak hartzerakoan toki-erregimeneko legediak eta r Sozietate Anonimoen Legeak ezarritako xedapenetara egokituko dira, ezgaitasun eta batera ezintasun gaietan.

Kontseilariak bost urteko epea beteko dute beren karguan, epe hori iragan ondoren berriro hautatuak izan daitezke behin edo gehiagotan denboraldi berdinerako. Alabaina, automatikoki galduko dute Kontseilari kargua Mankomunitateko Batzarkide direlako hautatuak izaten direnak, azken baldintza hau galtzen dutenean, jardunean jarraituko dutelarik kontseilari berriak izendatu bitartean.

Administrazio-Kontseiluan hutsune bat gertatzen bada, Batzarrak hilabete bat du kontseilari berria izendatzeko.

Kontseilariak dagokien dieta jasoko dute bilkurara joateagatik. Batzar Nagusiak finkatuko du delako dieta horien zenbatekoa. Gainera, Mankomunitateko Batzarkide ez diren kontseilariak, Sozietateko Batzar Nagusiak finkatuko duen ordainsaria jasoko dute.

18. Artikulua

Batzarrak izendatuko ez balitu, Kontseiluak izendatuko du Lehendakari izango dena eta, egoki irizten badu, Lehendakariorde bat edo gehiago.

Kontseiluak berak hautatuko du Idazkaria, edozein kontseilari izendatua izan daitekeelarik. Idazkaria kontseilari ez balitz aldi berean, ahotsa bai baina botorik ez du izango Kontseiluaren bilkuretan.

19. Artikulua

Lehendakariak luzatuko du Administrazio-Kontseilurako deialdia egoki irizten dionean, eta gutxienez hiruhilabetez behin.

Deberá hacerlo, asimismo, cuando lo soliciten por escrito un tercio de los consejeros, en cualquier caso dentro de los quince días naturales siguientes al ejercicio de esta petición.

Las sesiones se celebrarán en el local, día y hora señalados en la convocatoria, la cual se realizará por el Presidente del Consejo, con cuarenta y ocho horas de antelación, acompañándose a la misma el orden del día comprensivo de los asuntos que hayan de tratarse y la información complementaria suficiente.

El Consejo de Administración quedará válidamente constituido cuando concurren a la reunión, presentes o representados, la mitad más uno de sus componentes y si fuere el número impar la mayoría de los administradores. A estos efectos, la representación se conferirá mediante carta dirigida al Presidente.

No obstante lo establecido en los párrafos anteriores, el Consejo de Administración se entenderá convocado y constituido para tratar cualquier asunto siempre que, presentes todos sus miembros, acuerden por unanimidad la celebración del Consejo.

Artículo 20º

Corresponde al Consejo de Administración la representación de la sociedad, teniendo facultades lo más ampliamente entendidas, para contratar en general, realizar toda clase de actos y negocios, obligacionales o dispositivos, de administración ordinaria o extraordinaria y de riguroso dominio, respecto a toda clase de bienes muebles, inmuebles, dinero, valores mobiliarios y efectos de comercio, sin más excepción que la de aquellos asuntos que sean competencia de otros órganos o no estén incluidos en el objeto social.

A título enunciativo y no limitativo, se enumeran las siguientes facultades:

- 1) Acordar la contratación y el despido del personal empleado, técnico o administrativo, fijando sus facultades, deberes y retribuciones.

Gauza bera egin beharko du kontseilarien heren batek idatziz hala eskatzen duenean, eta nolahi ere eskabidea luzatu ondoko hamabost laneguneko epearen barne egin ere.

Bilkurak deialdian adierazitako leku, egun eta orduan ospatuko dira. Deialdia, berriz, Kontseiluko Lehendakariak berrogeita zortzi ordu aurretik jakinaraziko dio kide bakoitzari, beti ere jorratuko diren gaiak biltzen dituen gaitzerrenda eta informazio osagarria igorritz.

Administrazio-Kontseilua behar bezala eratu egongo da, pertsonalki edo ordezkatuak, kontseilarien erdiak gehi bat bilerara azaltzen badira, eta zenbakia bakoitia bada administratzaileen gehiengoa. Ordezkaritza ematea Lehendakariari zuzenduriko gutunaren bidez egingo da.

Aurreko puntuetan esan dena aintzat harturik, Administrazio-Kontseilua deitua eta edozein gai tratatzeko eratu dagoela esango da, kontseilu kide guztiak bertan direnean eta aho batez Kontseilua egiteko erabakia hartuz gero.

20. Artikulua

